

## **Aristofanes-en karramarroa.**

Eurípides-en artegintza ustelari aurre egiteko, *Igelak* izeneko lana idatzi zuen Aristofanesek. Ohiko estiloan, naturaren gorazarre lirikoak, umorea eta fantasia bitxiak erabili zituen elkarren ondoan, nahasturik bezala. Horrela, harmoniaz beteriko bide berri bat asmatu zuen ikuskizunarentzat, garaiko antzerkiarentzat. Kristo jaio baino 400 urte lehenago izan zen hori, Grezia Zaharrean.

Bada Aristofanesek idatzitako gauza bat, aforismo bikain eta irrigarritzat har dezakeguna: "Ezin zaio, inola ere, karramarroari zuzen ibiltzen irakatsi".

Benetako artista izan zen Aristofanes, eta argi ikusten da hori bere hitzetan. Irudi bat ematen digu, irudi trinko zoragarri bat karramarroaren ibilera aipatzerakoan. Esan gabe diosku, zeharka, atzeraka eta tatarrazka ibiliko dela karramarroa beti, ondoan hezitzailezik zorrotzena jarri arren.

Baina, nork nahi du hemen karramarroa zuzen ibiltzea? Edo, areago, zein da karramarroaren benetako ibilera zuzena, berezkoa duena ez bada?

Hondarrean ikus daitezke hark utzitako arrastoak. Puntuak izaten dira gehienetan, edo marra mehe eta sotilak, edota orbanak eta mantxak. Alboka, ezkerretara, eskumara... sekula ere ez Descartesek edota geometra arrazionalista batek nahiko luketen bezala. Egundo ere ez, guk espero genituen bezala. Inoiz ere ez guk zeharo ulertzeko moduan.

Baina begiratzen diozunean hondar gaineko zantzuari, ez dago zalantzaarentzat aukerarik: benetako karramarroa da hor pasatu dena, bere pausoan. Bistan

du seinalea, argia da adierazpena, zintzoa du urratsa. Horixe du karramarroak: beste ezer baino lehen, karramarro dela beti.

Ez dakit zergatik izango den, baina Aitor Etxeberria pintatzen ikusten dudan bakoitzean, karramarroak datozkit gogora.

## **El cangrejo de Aristófanes.**

A fin de combatir el arte corrupto de Eurípides, el gran Aristófanes escribió *Las ranas*. Utilizó para ello su estilo habitual: mezcló el humor, con la exaltación lírica de la naturaleza y con fantasías extrañas. De ese modo consiguió renovar la escena griega con propuestas de gran armonía. Eso sucedía 400 años antes de Jesucristo, en la Antigua Grecia.

Entre los escritos del viejo Aristófanes, se pueden leer unas líneas que funcionan hoy a modo de perfecto aforismo: "No hay forma de enseñar a caminar rectamente a un grangejo".

Aristófanes fue un artista verdadero, nos lo prueba en la concisión de sus palabras, en su capacidad de proyectar imágenes precisas y nuevas. Sin decirlo, sugiere que el cangrejo siempre caminará arrastrado y de lado, o hacia atrás. Jamás recto, aunque en ello isistan hábiles domadores de circo.

Pero, ¿quién quiere ver caminando recto a un cangrejo? Mejor dicho, ¿cuál es el recto caminar en el caso de un cangrejo, sino el suyo propio?

Sobre la arena de la playa se advierte su rastro sinuoso: puntos o finísimas líneas organizadas en minúsculos surcos, o cicatrices y manchas incomprensibles. De costado, hacia la derecha, hacia la

izquierda... nunca en el sentido  
esperado por Descartes o  
cualquier geómetra avezado.  
Jamás tal y como pensábamos o  
de forma que pudiéramos  
comprender del todo.

Pero cuando miras el rastro  
sobre la arena, adviertes que la  
duda no tiene opción: es un  
cangrejo el ser inequívoco que por  
ahí ha pasado a paso sincero. Los  
indicios son claros y coherente el  
paso dado.

Es eso, precisamente, lo  
que tienen los cangrejos: que  
jamás pueden dejan de serlo.

No sé por qué, cada vez que  
veo a Aitor Etxeberria pintando,  
me acuerdo de ellos.

H. Etxeberria. 2004.